


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**UPV/EHUren IKERKUNTZARAKO LAGUNTZAK
EMATEKO DEIALDIA
(2018)**

ATARIKOA

UPV/EHUren eginkizun funtsezkoa da ikerkuntza, ikerkuntza baita jakintza sortzeko tresna, irakaskuntzaren oinarria, komunitatearen aurrerapenerako baliabidea eta jakintza gizartera transferitzeko euskarria. Horrela, bada, unibertsitateak bere egiten du helburu garrantzitsuenetako bat bezala ikerketa zientifiko, tekniko, humanistiko eta artistikoa garatzea, eta ikertzaileak prestatzea. Era berean, ikertaldeak sortu eta garatzea sustatzen du, eta kalitatea, diziplinartekotasuna eta nazioarteko bikaintasun sareetan txertatzea bultzatzen ditu, bai eta beste erakunde edo enpresa batzuekin talde mistoak eratzea ere.

UPV/EHUK, bere estatutuek dioten legez, ikertzeko gaitasuna onartu eta bermatuko du, zientzialariek onetsitako lege eta kode edo arau deontologikoetan jasotako mugen barruan. Euskara sustatzeko konpromisoa hartzen du, ikerkuntzan eta zientziaren zabalkundean, eta berdintasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloko ikerkuntza bultzatzeko, hobeto ezagutzeko eta ulertzeko mundu osoan giza garapena eta garapen jasagarria mehatxatzen dituzten arazoak. Arlo honetan, ikerkuntzari esker, garapen jasagarriko 2030 agenda (Nazio Batuak, 2015) gauzatzen lagunduko da kontziente eta irmoki.

2018. urteko Ikerkuntzarako Laguntzen deialdi honen xedea da kalitatezko ikerkuntza sustatzea, ikerkuntzarako baliabideak egokitu eta hobetzea, eta jakintzaren transferentzia indartzea, laguntza eta babesa eskainiz gure unibertsitateko ikertzaileei, jakintza arlo guztietan.

Xede honetarako, guztira, 400.000 euro bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzarekin eginiko Programa Kontratuaren barnean adostutako finantzaketan oinarrituta ezarri den aurrekontu kredituaren arabera, "Ikerketa sustatzea eta bultzatzea" helburua, "1.1. Ikerketa proiektuak, taldeak eta azpiegitura zientifikoa" ekintza, eta "Transferentzia eta Berrikuntza" helburua, "5.1. Gizarte erronkei begira eginiko lankidetzazko ikerketa" ekintzaren baitan. Kopuru hau handitu ahalko da aurrekonturik izanez gero.

Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB, aurrerantzean) oniritzia eta Gobernu Kontseiluaren onespena jaso ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak erabaki du UPV/EHUko ikerketarako laguntzen deialdia (2018) argitaratzea. Modalitate hauek izango ditu:

- **I. modalitatea: Ikerkuntzan hasteko edo ikerkuntzari berriro ekiteko laguntzak**
- **II. modalitatea: Aurreko deialdietan laguntzarik lortu ez duten ikertaldeetarako laguntzak.**
- **III. modalitatea: Unibertsitate-gizartea Ikerketa Proiektuak**

1. oinarria. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honek bultzada eman nahi dio UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen ikerlanari, eta lan horren kalitateari, bertako ikertzaileen ikerkuntza karrera garatzen lagunduko duten laguntzen bitartez.

Beraz, deialdiaren xedea da jakintza sortzea eta jakintza hori gizartearen esku uztea, UPV/EHUK ekonomia eta gizarte eragileekin duen elkarlanaren bidez, azken horiek ezinbestekoa baitute hori berrikuntzaren bideari ekiteko. Laguntzei esker, bost jakintza arloetan ikertu ahal izango da: zientziak, ingeniariak eta arkitektura, osasun zientziak, gizarte eta lege zientziak eta artea eta giza zientziak.

Ikerkuntzarako ekintzen bidez, erdietsi nahi diren oinarritzko helburuak dira:

- Jakintzaren maila handitzea, bere horretan ondasuntzat jo nahi baita.
- Berrikuntza bultzatzea, lehiakortasuna eta gizarte ongizatea areagotzeko elementua den aldetik.
- Ekarpena egitea jakintzaren transferentziari eta harremanak estutzeari eta dinamizatzeari unibertsitatearen eta gizartearen artean.

2. oinarria. DEIALDI HONETAKO LAGUNTZEN ONURADUN IZATEKO BALDINTZAK

Honako hauek dira deialdi honetan aurreikusten diren laguntzak eskatu nahi dituztenek izan beharreko baldintzak:

- i. Epai irmoz kondenatuta ez egon, diru laguntza edo laguntza publikorik jaso ezin izatera.
- ii. Egunean egon, itzuli beharreko subentzioen itzultzeen ordainketan.
- iii. Ebazpen irmo bidez zigortuta ez egon, lege honen edo beste lege batzuen arabera, diru laguntzak ez jasotzera.

Deialdi honetako edozein modalitatetan aurreikusitako laguntzearako jarduerak egiten dituzten ikertaldeak onuradun izan ahalko dira ikertaldea osatzen duten kide guztiek aurreko baldintza guztiak betez gero.

I. MODALITATEA. Ikerkuntzan hasteko edo ikerkuntzari berriro ekiteko laguntzak

3. oinarria. IKERKETAN HASTEKO edo BERREKITEKO LAGUNTZEN HELBURUA

3.1. Laguntza hauen bidez lagundu eta bultzatu nahi da unibertsitateko irakasle-ikertzaileei ekin diezaioten, ikerkuntzaren inguruko edozein jardun eginik jakintzaren bost arloetan: zientziak, ingeniariak eta arkitektura, osasun zientziak, gizarte eta lege zientziak eta artea eta giza zientziak.

Helburu honek alderdi bitarikoa du:

- Ikerlanari ekiten laguntzea UPV/EHU hasiberriak diren irakasleei.
- Ikerlanari ekiten laguntzea hainbat arrazoiengatik ikertalde batean ez dauden unibertsitateko irakasle doktoreei.

3.2. Ikerlana egingo da nahitaez eskaera aurkezteko unean aitortua eta jardunean dagoen ikertalde baten barnean.

Hori horrela, ikertaldeko ikertzaile nagusiak **konpromisoa** hartuko du laguntza eskatu duen pertsona bere taldean sartzeko, eta parte hartuko duen hurrengo deialdian aurkeztuko duen finantzaketa eskaerari lotutako pertsona taldean mantentzeko.

- UPV/EHUko ikertaldeei laguntzeko deialdian aitortutako ikertaldean kasuan, dokumentu horrek berak balioko du deialdian sartutako ikertzaileen inkorporazio eskaera gisa.
- Euskal Unibertsitate Sistemako ikertaldeei laguntzeko deialdian aitortutako ikertaldean kasuan, dokumentu horri gehituko zaio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Ikerkuntzako zuzendariari zuzendutako inkorporazio eskaera.

3.3. Eskaera dokumentuan, taldean sartzen den pertsonak egingo dituen ikerlanak azalduko dira laburbilduta, eta lan horiek laguntzaren indarraldiaren barnean egingo dira nahitaez.

4. oinarria. LAGUNTZA ESKA DEZAKETEN PERTSONEN EZAUGARRIAK

Laguntza eskatzen duten pertsonak lanaldi osoa izango dute eta ondoko ataletan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte:

4.1. UPV/EHUrekiko enplegu lotura motak:

- UPV/EHUekin lan kontratatu iraunkorra dutenak edo funtzionarioak, ikertzaile iraunkorrak izan ezik.
- Langile ez-iraunkorrak. UPV/EHUrekiko haien kontratuak edo loturak urtebeteko iraupena izango du gutxienez, eskaera datatik kontatzen hasita.

Atal honetan sar daitezkeen kolektiboak gorabehera, kategoria honetatik kanpo gelditzen dira espresuki:

- UPV/EHUekin loturiko pertsonala, Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren 14/2011 legearen 21, 22 eta 23. artikuluetan jasotako kontratu mota ezberdinen bidez.
- UPV/EHUko deialdietako doktoratu ondoko ikertzaileak eta Eusko Jaurlaritzakoak.

4.2. Eskatzaileek ezin izango dute:

- Honako hauetan parte hartu izana, azken hiru urtetan:
 - Lehiaketa deialdiren batean finantzaketa iturririk lortu duten ikerketa proiektuetan.
 - Edozein gizarte eragilerekin kopuruak metatuz eginiko 10.000 eurotatik gorako kontratuetan, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoaren 83. artikulua araberak.
 - UPV/EHUko edo Euskal Unibertsitate Sistemako ikertaldeetan (finkatuak).
- Modalitate honetako eskaera batean baino gehiagotan aldi berean parte hartzea edo ikertzen hasi edo berrekiteko laguntzarik lortu izana aurreko deialdietan.

5. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

5.1. Eskatzaile bakoitzak 3.000 € eskatu ahal izango ditu gehienez.

5.2. Laguntza urte natural baterako izango da gehienez, laguntza ematea erabakitzen den egunetik kontatzen hasita.

5.3. Eskaera egin duenari dagokion ikertaldea izango da laguntzaren hartzailea.

5.4. Laguntzak edozein motatako gastuetan erabili ahal izango dira, baldin eta laguntzaren xede diren jardueretan sortutakoak direla justifikatzen bada.

6. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Honako hauek dira esleipendunak hautatzeko kontutan hartuko diren alderdiak:

- a. Ikertaldeak dagokion deialdian lortutako balorazioa (80 puntu).
- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculum, kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera kalkulatu dena (10 puntu).
- c. Eskaera egin duen pertsonak proposatu duen jardueraren balorazioa (10 puntu).

Finantzazioa jasotzeari begira, eskaera hautagarria izan dadin, eskaerak 60 puntu lortu behar ditu, gutxienez.

II. modalitatea. Aurreko deialdietan laguntzarik lortu ez duten ikertaldeetarako laguntzak.

7. oinarria. IKERTALDEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Baldintza hauek guztiak betetzen dituzten taldeek hartu ahal izango dute parte deialdiaren modalitate honetan:

- a. Aldez aurretik UPV/EHUren ikertaldeek jarduera sustatzeko 2017ko deialdian parte hartu izana, finantzaziorik lortu gabe.
- b. 55 puntutatik gorako puntuazioa lortu izana.
- c. Ikertaldeko ikertzaile nagusiak sinatuta, euskal gobernuak edo UPV/EHUk, honako deialdi honen ostean, ikertaldeek finantzaziorako dei egingo duten lehendabiziko deialdian parte hartzeko konpromisoa adierazi.

8. oinarria. LAGUNTZA ESKATZEN DUTEN TALDEEN OSAERA

Laguntza hau eskatzen duen ikertaldeek lehenago parte hartu dueneko deialdian aurkeztu zuen osaera bera agertu beharko dute pertsonalari dagokionean, aurreko oinarrian adierazitakoarekin bat etorrita.

Onartuko diren aldaketa bakarrak izango dira deialdi honetan ezarritako eskaera epearen hasieran jada UPV/EHUrekin lan harremanik ez duten pertsonenak.

9. oinarria. LAGUNTZEN IZAERA

9.1. Laguntzarako eskarian ez da kopururik ageriko, laguntzaren kalkulatzeko 7.a oinarrian aipatzen den eskaria hartuko baita kontutan.

Ondoren, talde bakoitzari emango zaion laguntza ezagututa, 9.2 oinarrian jasotako gastu motetan banatuko du laguntza taldeak, ikertaldeak banaketarako ezarriko dituen barne irizpideen arabera.

9.2. Laguntza gastu hauetarako erabili ahal izango da:

- a. Ohiko azpiegitura zientifikoa eta ekipamendu informatikoa. UPV/EHUko Kontratazio eta Erosketa Zerbitzu zentralaren bidez bakarrik erosi ahal izango dira.

Laguntza jaso eta hurrengo hiru hilabeteetan egingo dira azpiegitura zientifikoaren erosketak. Epe hori igarota, kontzeptu honetara bideratutako finantzaketa erretiratuko du Ikerketaren arloko Errektoreordetzak.

- b. Taldearen ikerlanerako behar den material suntsikorra.
- c. Bidaiak eta dietak, ikertaldeak, egiten duen ikerlanari loturik egin beharreko bidaiak edo ikerketa proiektuaren emaitzak batzar zientifikoetan azaltzeko taldekideek egin beharreko joan-etorriek eragindakoak.

Atal honetara bideratutako kopuruek (gehienez lau astekoak izango diren egonaldi laburrak barne) zerikusi zuzena izango dute ikertaldearen helburuak betetzeko egin beharreko gastuarekin. Planifikatutako jarduerak garatu ahal izateko, kanpoko lana (inkestak, elkarrizketak eta beste) egin behar denean, joan-etorri hauen kostua bidaiak eta dieten atalean jarri beharko dira. Atal honetan sartuko dira ere kongresuetan parte hartzeko bidaiak sortutako gastuak eta horietan izena emateko kuoten ordainketa.

Gastuen epigrafe honetan sartuko dira soil-soilik laguntza eskaeran agertzen diren ikertaldeko kideak.

- d. Beste gastu batzuk, aurreko atalean zehaztutako gastuetan sartzen ez direnak, baina behar bezala egiaztatuta daudenak. Barne izango dira konponketa eta mantentze lanak, UPV/EHUko zerbitzu zentralak egindako mantentze kontratuetan sartzen ez direnak, eta kanpo zerbitzuekin egindako kontratazioak; era berean, hemen sartuko dira proiektura atxikita egonda, UPV/EHU lan egiteko istripu aseguruaren estaldurarik ez duten kideen aseguruak eta kanpoko zerbitzuen kontratazioa.

Bestelako gastuen epigrafe honetan sartuko dira soil-soilik laguntza eskaeran agertzen diren ikertaldeko kideak.

Egin beharreko gastua ez bada aurreko ataletan zehaztutakoa, baimena eskatu ahal izango zaio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

10. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Kontutan hartuta, 7. oinarrian adierazitakoaren arabera, II. modalitateko talde eskatzaileek aurkeztutako eskaerak jada ebaluatuak izan zirela dagozkien deialdietan, aintzat hartuko da deialdi horietan eginiko ebaluazioa.

III. MODALITATEA Unibertsitate-gizartea Ikerketa Proiektuak

11. oinarria. UNIBERTSITATEA-GIZARTEA PROIEKTUEN HELBURUAK

11.1. Proiektu hauen xedea da jakintza gizarteratzen laguntzea ikertaldee, eta ikertaldeen eta haien ingurune sozioekonomikoaren arteko elkarreragina bultzatzea, gai izan daitezkeen jakintza transferentzia egiteko, diziplina anitzeko ikuspegi batetik eta masa kritiko handiagoko taldeen bitartez.

11.2. Proiektu hauen bidez, Euskal Herriko gizarte eta ekonomia erakundeetarako egokiak izan daitezkeen proiektu berritzaileak sustatu behar dira.

11.3. Ezin izango dira deialdi honetara aurkeztu proiektu gisa aurkeztutako zerbitzu proposamenak.

11.4. Ezinbestekoa izango da proiektuan gutxienez unibertsitateko ikertalde batek eta erakunde ekonomiko edo sozial batek parte hartzea.

11.5. Parte hartzen duten erakunde ekonomiko edo sozialek gutxienez proiektuko gastu aurrekontuaren % 20 finantzatu beharko dute, eskudirutan egindako ekarpenaz. Erakunde laguntzailea GKE edo, fundazio, kultur elkarte, aisiarako elkarte edo gisa honetako irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeak direnean (aurrerantzean IAGE), kasuan kasu aplikatu beharreko legeriarekin bat etorrita eratu direlarik, dirutan egindako ekarpenaren ordezkari ikertzaileen edo teknikarien parte hartzea edo diruz besteko bestelako ekarpena izan liteke ikerketaren garapenean egindako ekarpena, beti ere proiektuaren behar bezalako gauzatzeari begirakoak eta sinatu beharreko hitzarmenean, legokiokeen atalean, behar bezala deskribatuz gero. IAGEen kasuan, inskribatutako egongo dira Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren erregistroan eta indarrean izan UPV/EHUrekiko lankidetzak hitzarmen bat.

Proiektuaren iraupena urtebete edo bi urtetakoa izango da.

11.6. UPV/EHUk baloratu egingo du gizarte edo ekonomia erakundeekiko elkarlanaren egokitasuna, erakunde horien balio etikoak eta proiektuaren helburua unibertsitatearen balio etikoekin bat ote datozen.

12. oinarria. IKERTALDE ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

UPV/EHUko IKERTALDEA

Ikertaldeen 12.1 atalean jasotzen diren UPV/EHUrekiko enplegu lotura motari dagozkion baldintzetako bat betetzen duten osakideak izango dituzte eta, ikertaldeen osatzeko 12.2 atalean zehazten dituen baldintzak beteko:

12.1. UPV/EHUrekiko lotura motak:

- a. UPV/EHUekin kontratu iraunkorra edo funtzionarioa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua arabera kontratatutako pertsona (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHUen Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsona, Ikerbasque programari atxikitako pertsona, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsona doktorea eta irakasle atxikiak edo aldi baterako lan kontratudunak, irakasle atxiki ohiak direnak, lanpostu iraunkor baterako akreditatuta egonez gero.
- b. Pertsona ez iraunkorra, UPV/EHUrekiko kontratuak edo loturak 2018ko abenduaren 31ra artekoa izan beharko du, gutxienez.

Ondorio horretarako, besteak beste, hauek hartuko dira pertsona ez iraunkortzat:

- i. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 21. (doktorego aurreko kontratuak) eta 22. (Zientzia teknologiaren espainiar sistemara sartzeko kontratua) artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUekin lotura duten ikertzaileak. Kasu hauetan, kontratua 2019ko abenduaren 31a baino lehenago amaitzen bada, lan harremana ordura arte luzatzeko konpromisoa agertu ahal izango da bere kontratuaren arduradunak sinatuta.

Prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzaileei dagokienez, doktorego tesiaren zuzentzaileak proiektuaren ardura daraman taldeko kide beharko du izan.

- ii. UPV/EHUko deialdietako doktorego ondoko ikertzaileak eta Eusko Jaurlaritzakoak.
- c. Ikerkuntzarako lankide akademikoa, unibertsitatearen arautegian ezarritako prozedurekin bat etorrita.

12.2. Ikertaldeen osatzeko baldintzak:

- a. Ikertaldeak, gutxien dela, 12.1.a. atalean aipatutako kolektiboetako hiru doktore izango ditu osakide.
- b. Eskaera koordinatzen duen ikertzaile nagusia 12.1.a. atalean aipatutako kolektibo batekoa izango da. Doktorea izango da eta arduraldi osoa izango du.
- c. Proiektuetan ikertzaile nagusi kide bat egon ahal izango da, lehenengoa egon ez eta ikertzaile nagusi arituko dena, beti ere 12.1.a oinarrian eskaturiko baldintzak beteta.
- d. Ikertzaile nagusietako batek gutxienez enplegu lotura izan beharko du UPV/EHUrekin eta berau izango da UPV/EHUko izatea betebeharraren moduan ezartzen duten funtzioetarako arduraduna (sinatu UPV/EHUn izenean, unitate organikoak erabili eta abar).
- e. Ezin izango da III. modalitate honetako proiektuetarako ikertaldeetako kide edo ikertzaile nagusi izan, UPV/EHUn ikerkuntza laguntzeko 2017. urteko deialdian modalitate bereko ikerketa proiektu batean parte hartu zuen ikertzailea.
- f. Ez dago inolako bateraezintasunik modalitate honetako ikerketa proiektuetako taldekide izatearen eta jardunean dauden ikertalde aitortuetako kide izatearen artean.

12.3. Aldi berean eskaera batean baino gehiagotan parte hartzea: Ikertaldeko ezein kidek (ez eta ikertzaile nagusiak ere) ezin izango du parte hartu deialdi honetako modalitate honetako eskaera batean baino gehiagotan. Ikertzaile batek aldi berean modalitate honetako bi proiektutan edo gehiagotan parte hartzen bada, proiektu horietatik kanpo geldituko da.

GIZARTE ERAGILEETAKO LAGUNTZAILEAK

Gizarte eragilearen plantillako ikertzaile batek gutxienez parte hartuko du proiektuan. Komeni da goi mailako titulua edukitzea, eta esperientzia akreditatua proiektuaren aztergaietan.

13. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

13.1. Honako hauetarako eskatu ahal izango da laguntza:

- a. Ikertzaileak kontratatuzko laguntzak.
- b. Ohiko azpiegitura zientifikoa eta ekipamendu informatikoa. UPV/EHUko Kontratazio eta Erosketa Zerbitzu zentralaren bidez erosi ahal izango dira, ez bestela.

Azpiegitura zientifikoa proiektuaren amaiera data baino sei hilabete lehenagora arte eros daiteke. Epe hori igarota, epigrafe honetara bideratutako finantzaketa erretiratuko du Ikerketaren arloko Errektoreordetzak.

- c. Material suntsigarria, proiekturako beharrezkoa bada eta behar bezala justifikatzen bada.
Atal honen barnean sartuko dira ekipamendu zientifikoaren funtzionamendutik sortutako gastu guztiak, bai eta ikerketako zerbitzu nagusiak (SGIker) erabiltzeak sortutakoak ere.
- d. Bidaiak eta dietak, proiektuari loturik egin beharreko bidaiak edo ikerketa proiektuaren emaitzak batzar zientifiko garrantzizkoetan azaltzeko egin beharreko joan-etorriek eragindakoak.

Atal honetan sartutako zenbatekoek, bai eta, gehien dela, lau aste arteko egonaldi laburrenak ere, lotura zuzena izan behar dute proiektuaren helburuekin, eta behar bezala egiaztatuta eta zenbatespen nahikoaz ageri beharko dira eskarian. Proiektua garatu ahal izateko, kanpoko lana (inkestak, elkarrizketak eta beste) egin behar denean, joan-etorri hauen kostua bidaiak eta dieten atalean jarri beharko dira. Atal honetan sartuko dira ere kongresuetan parte hartzeko bidaiak sortutako gastuak eta horietan izena emateko kuoten ordainketa.

Gastuen epigrafe honetan sartuko dira soil-soilik 12. oinarriko baldintzak betetzen dituzten ikertaldeko kideek eta proiektuan parte hartzen duen gizarte erakundekoek eginikoak.

- e. Beste gastu batzuk, aurreko atalean zehaztutako gastuetan sartzen ez direnak, baina behar bezala egiaztatuta daudenak. Barne izango dira konponketa eta mantentze lanak, UPV/EHUko zerbitzu zentralak egindako mantentze kontratuetan sartzen ez direnak, eta kanpo zerbitzuekin egindako kontratazioak; era berean, hemen sartuko dira proiektura atxikita egonda, UPV/EHUn lan egiteko istripu aseguruaren estaldurarik ez duten kideen aseguruak eta kanpoko zerbitzuen kontratazioa.

Gastuen epigrafe honetan sartuko dira soil-soilik 12. oinarriko baldintzak betetzen dituzten ikertaldeko kideek eta proiektuan parte hartzen duen gizarte erakundekoek eginikoak.

13.2. 1.800 euro eskatu ahal izango dira gehienez urte eta pertsona bakoitzeko, eta 18.000 euro/urte gehienez proiekturako.

14. oinarria. HARREMANA GIZARTE ERAGILE LAGUNTZAILEEKIN

14.1. Gizarte edo ekonomia erakundearen ekarpenak ez du mugarik izango, eta deialdi honetan jasotako finantzaketak estaltzen ez duen proiektuaren kostu osoa hartu ahal izango du, deialdiaren ebazpidean azkenean jasotako kopurua kenduta.

14.2. Gizarte edo ekonomia erakundeko pertsonaren eta UPV/EHUren arteko harremana arautu egingo da lankidetzaz hitzarmen bidez, deialdi honi erantsitako bi ereduetakoa bat erabilita, erakunde motaren arabera:

- a. Erakundearen eta UPV/EHUren arteko lankidetzaz hitzarmena, ikerketa proiektu bat egiteko.
- b. GKE edo irabazi asmorik gabeko bestelako erakundearen eta UPV/EHUren arteko lankidetzaz hitzarmena, ikerketa proiektu bat egiteko.

Gizarte edo ekonomia erakundeak hitzarmena sinatuko du, deialdian eskaera aurkeztu aurretik, eta soilik sartuko da indarrean Ikerketaren arloko Errektoreordetzak proiektu proposamenaren aldeko ebazpena ematen badu.

14.3. Gizarte edo ekonomia erakundearen ekarpenak zergapekoak dira eta ez daude BEZetik salbuetsita.

14.4. Lehenengo urteko ekarpena kopuru bakar batez egingo da.

Fakturan zehaztuko dira, kontzeptu gisa, finantzatzen den proiektuaren izena eta zer urtetako ekarpenari dagokion, BEZaren zerga oinarria (ekarpenaren zenbatekoa izango da), eta UPV/EHUK faktura egitean indarrean dagoen portzentajearen arabera kalkulaturako BEZA.

14.5. UPV/EHUK gizarte eragilearen ekarpena bideratzeko jaulkitako fakturaren ordainketa legeak fakturak ordaintzeko ezartzen duen epearen barnean egingo da.

Edonola ere, faktura jaulki eta hiru hilabetetara ordaindu ez bada, bertan behera gera liteke proiektua eta, hala balegokio, aurrekontu kreditua erretiratu.

14.6. Proiektuak bigarren urte bat badu, honetara joko da:

- a. Bigarren urterako aurrekontu ekarpena gauza dadin, ezinbestekoa izango da aurrekontu kontsignazioa edo konpromisoa egotea UPV/EHUK ekitaldirako duen aurrekontuan.
- b. Lehenengo urtean eginiko lanaren memoria aurkeztuko da. Ezinbestekoa izango da Ikerketaren arloko Errektoreordetzak oniritzia ematea memoriari bigarren urteari dagokion faktura jaulkitzeko.
- c. Gizarte edo ekonomia erakundearen ekarpenari dagokien aurrekontu ekarpena bigarren urteari dagokion faktura jaulkitzean egingo da eta diru hori blokeatu egingo da, gizarte eragileak edo eragileek dagokion abonua egin arte, ezin izango delarik proiektuan erabili.
- d. Bigarren urteari dagokion zenbatekoa urte naturalaren hasieran ordainduko da. Horretarako, UPV/EHUK dagokion faktura egingo du, lehenengo urtean eginikoaren termino berberetan, baina bigarren urteari dagokiola adierazita.

15. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
1.- Proiektuaren kalitate zientifiko eta teknologikoa: <ul style="list-style-type: none"> • Proposamenaren interes teknologikoa, ekonomikoa edo soziala, originaltasuna eta izaera berritzailea (10 puntu). • Metodologiaren eta teknika instrumentalaren egokitasuna (10 puntu). • Laneko plan bideragarri eta posibilista (10 puntu). 	30

<p>2.- Ikertzaileen kalitate zientifiko eta teknikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikertzaileen curriculuma (15 puntu). • Deialdi publikoetan eta/edo kontratu bidez finantzatutako proiektuetan lortutako produktibitate zientifikoa (15 puntu). 	30
<p>3.- Proiektuaren transferentzia eta finantzaketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proiektua kudeatzeko eta teknologia eta jakintza transferitzeko plana (10 puntu). • Aurrekontua proiektuaren helburuetara egokitzea (10 puntu). 	20
<p>4.- Proiektuan parte hartu duen erakundearen inplikazio ekonomikoaren maila, diru ekarpena.</p> <p>Atal hau honakoei jarraiki balioetsiko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eragile sozialaren ekarpena = % 20: 0 puntu. • % 20 < eragile sozialaren ekarpena ≤ % 75: [(eragile sozialaren ekarpenaren %-20)*20/55] • Eragile sozialaren ekarpena > % 75: 20 puntu. <p>Erakunde parte hartzailea GKE bat edo irabazi asmorik gabeko bestelako erakunde bat denean, atal hau honakoari jarraiki balioetsiko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • % 0 < ekarpena ≤ % 55: [(ekarpenaren %)*20/55] • Ekarpena > % 55: 20 puntu. <p>Puntuazio honen kalkulurako, dirutan egindako ekarpenak besterik ez da aintzat hartuko.</p>	20
<p>BALORAZIO OROKORRA</p>	100

Horrez gain, emakumezko ikertzaileak buru dituzten eskaeren kasuan 2 puntu gehiago erantsiko zaizkio eginiko ebaluazioaren emaitzari.

Finantzaketa lortze aldera nahitaezkoztat joko da 1., 2. eta 3. irizpideen arteko puntuazioaren batuketa 50 puntutatik gorakoa izatea.

LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA OROKORRA

16. oinarria. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

- I. modalitaterako: Ikerketan hasteko edo ikerketari berriro ekiteko laguntzarako deialdia aurrekontu ekitaldi osoan egongo da irekita, edo kreditu erabilgarria agortu arte. Horren berri emango da, denek jakin dezaten.

Modalitate honetarako ezarritako arautegiak egungoa ordeztuko duen hurrengo deialdia argitaratu arte egongo dira indarrean.

- II. modalitaterako: Aurreko deialdietan finantzaketarik lortu ez duten ikerketa taldeentzako laguntzak; deialdia irekita egongo da 2018ko otsailaren 20ra arte (egun hori barne).
- III. modalitaterako: Unibertsitatea-gizartearen ikerketa proiektuetarako deialdia 2018ko martxoaren 9ra arte egongo da irekita (egun hori barne).

17. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

17.1. Eskaera ikertzaile nagusiak egin beharko du.

17.2. I. eta II. modalitateetarako, dagozkion eskabide dokumentuak besterik ez.

17.3. III. modalitaterako, honetara joko da:

- a. IKERTU aplikazio telematikoa eskaintzen duen inprimaki elektronikoa beteko da, eta bertan erantsiko dira, PDF formatuan, ikertzaileen curriculumak (CV), inprimaki elektronikoaren "UPV/EHU Taldea" atalean. CVak ez dira, inolaz ere, paperean aurkeztuko. Izapide hori gauzatzeak ez du esan nahi eskabidea berariaz aurkeztu denik.
- b. Honako dokumentu hauek emango dira paperean:
 - i. IKERTU aplikazioak eskaintzen duen inprimaki elektronikotik ateratako eskabidearen laburpena.
 - ii. Bi aldeek gizarte eragilearekin sinaturiko lankidetzaren hitzarmena, deialdi honekin batera datorren eredu normalizatua erabilia.
 - iii. Zinpeko adierazpena esanez ez daudela 2. oinarrian adierazitako egoeretakoren batean. Adierazpena jardueran arituko den taldeko kide guztiek sinatuko dute, proiektuaren gauzatzean laguntzen duen erakundeko pertsonak barne hartuta.
 - iv. GKE edo irabazi asmorik gabeko bestelako erakundeen kasuan, proposaturiko ikerketa jarduerarako funtsik ez dela eta erakundearen helburuak lortzeko adierazitako ikerketa jardura gauzatzea ezinbestekoa dela dioen zinpeko adierazpena.

Aurreko b ataleko ii, iii eta iv ataletan adierazitako dokumentuak honako webgune honetatik deskargatu ahalko dira: <http://www.ikerkuntza.ehu.eus/>

Aurreko atalaren b azpiatalean adierazitako dokumentazioa UPV/EHUko Erregistro Orokorraren, gaituriko campuseko/ikastegiko erregistro osagarrien edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan jasotako prozeduretakoren baten bitartez entregatuko da.

18. oinarria. LAGUNTZAK GESTIONATZEKO ORGANOA

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egingo ditu deialdi honetako laguntzen kudeaketa lanak, Ikerketaren gestioari zuzendaritzaren bidez.

19. oinarria. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA

19.1. I. modalitateko eskabideetarako, Ikerketaren arloko Errektoreordetzan 17.2.a atalean jasotako eta erregistro bidez aurkeztutako dokumentazioa jasotzean, eskaerak deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko da. Eskaeraren alderdiren bat zuzendu beharko balitz, egoera horren berri emango zaio eskatzaileari, 10 egun baliadunen epean beharrezko zuzenketa egin ditzan eta, hala, ebaluatu ahal izan dezaten.

19.2. II. eta III. modalitateetako eskaerei dagokienez, modalitate bakoitzerako eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hamar egunera, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak datu edo baldintza guztiak betetzen ez dituzten eskaeren zerrenda argitaratuko du bere web atarian. Bertan eskaera bakoitzak zer falta duen zehaztuko du, interesdunek akatsa zuzen dezaten. Hamar egun baliadunen epea irekiko da,

zerrenda argitaratzen denetik hasita, dokumentazioa osatzeko. Epe hori igarota ez bada akatsa zuzendu, ulertuko da eskaria bertan behera utzi direla.

19.3. III. modalitaterako 15. oinarrian zehazturiko 1. 2. eta 3. irizpideen balorazioa Ikerketako Estatu Agentziako Ebaluazio eta Koordinazioko azpiatalaren (lehen ANEP) bidez egingo da.

Horregatik, eta euskaraz eginiko eskabideak ebaluatu ahal izan daitezzen, honako prozedura hau jarraituko da:

- a. Ikerketaren arloko errektoreordetzak Euskararen arloko Errektoreordetzari aginduko dio euskaraz agertutako eskarien itzultzeko.
- b. Itzulpena jaso eta gero, posta elektronikoaz helaraziko zaio ikertzaile nagusiari, eskariak adierazitako helbide elektronikoaren bidez.
- c. Bost egunen epea izango du itzulpena birpasatu eta adostasuna agertzeko. Epe hau kontatzeko, aintzat hartuko da postaren gestoreak mezu elektronikoa ematerakoan emititzen duen egiaztagiria. Epe hori iraganik, ulertuko da ikertzaile nagusia ados dagoela itzulpenarekin.

19.4. III. modalitaterako 15. oinarrian aipatzen den laugarren irizpidea bertan jasotako formula aplikatuta balioetsiko da, eta I. modalitaterako 6. oinarrian aipatzen diren ebaluazio irizpideen balorazioa Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egingo du.

19.5. Ebaluazio prozesuan, egokitzat joz gero, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (IGBB), kanpoko ebaluatzaileek hala proposaturik, proiektuetan aldaketak egitea proposatu ahal izango die eskatzaileei, programa honen helburuetara hobeto egokitzeko. Ebaluazio prozesuan ikertzaile nagusiari ebaluatzaileekin biltzeko eskatu ahal izango zaio, eskaeraren inguruko azalpen eta xehetasun gehiago emateko.

19.6. Uko egin ahal izango zaie ebaluatzaileen ustez aurrekontu handiegia behar duten eskabideei eta eskaturiko finantzaketa proposaturiko iturrien bidez lortzeko aukera gutxi daudela jotakoei.

20. oinarria. EBAZPENA

20.1. I. modalitatearen kasuan, IGBBk ebaluatuko du eskaera eta emango du behin-behineko erabakia, deialdi honetan aurreikusitako ebaluazio irizpideei jarraiki, aurrekontu kreditua agortu bitartean, eta, betiere, deialdian zehaztutako gutxieneko kalitate atalasea gainditzen badute.

20.2. II. modalitateko eskabideetarako, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egingo du, IGBBren txostena eta gero, 7. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituzten taldeei dagokien laguntza emateko erabakia, 9. oinarrian ezarritako irizpideei jarraikiz.

20.3. III. modalitateko eskabideentzat, IGBBk erabaki proposamena egingo du deialdi honetan ezarritako ebaluazio irizpideen arabera lortutako puntuazioa kontuan hartuta; hala, laguntza esleituko zaie, kreditua agortu bitartean, baloraziorik onena lortu duten proiektuei, betiere, 15. Oinarriaren 1, 2 eta 3. irizpideetan 50 puntutako atalasea gaindituz gero.

Erabaki proposamen hori Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da, eta eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziko da.

20.4. Eskatzaileek 10 egunen epea izango dute, gehienez eta proposamena argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, onartzen dutela edo uko egiten diotela adierazteko, edo egokitzat jotako alegazioak aurkezteko.

Alegazio horiek oinarritzeko, ikertzaile nagusiak bere proiektuaren ebaluazio txostena eskatu ahalko du posta elektronikoan, convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera zuzenduta.

Alegazioen dokumentua UPV/EHUko Erregistro Orokorraren, gaituriko campuseko/ikastegiko erregistro osagarrien edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedurari buruzko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan jasotako prozeduretakoren baten bitartez aurkeztuko da.

Adierazitako epea igaro bada alegaziorik aurkeztu gabe, behin-behineko erabaki proposamena onartutzat joko da, eta interesdunak alegatzeko bere eskubidea indarrrik gabe geratu dela ulertuko da.

Ikerketaren arloko errektoreordeak laguntza horiek emateko erabakia Ikerketako webgunean argitaratuko da eta eskatzaile bakoitzari banako ebazpena igorriko zaio.

20.5. Adierazitako erabakiaren aurka berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko da, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 39/2015 kegearen 123. eta 124.

artikuluetan ezarritakoaren arabera.

20.6. Era berean, erabakiaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, erabakia iragarri eta hurrengo egunetik hasita.

21. oinarria. LAGUNTZA ORDAINTZEKO BALDINTZAK

21.1. I. modalitatean esleituriko laguntza emateko, laguntza eskatu duen pertsonak, sartuta dagoen taldeko ikertzaile nagusiarekin batera, deialdiaren erabakian proposaturiko finantzaketa baldintzak onartzeko dokumentua sinatu beharko du.

21.2. II. modalitateko laguntzak emateko, deialdiaren erabakia argitaratu ostean, ikertaldeko ikertzaile nagusiak sinatu beharko du deialdiaren erabakian proposaturiko finantzaketa baldintzak onartzen dituela dioen dokumentua.

21.3. III. modalitateko laguntzak emateko, deialdiaren erabakia argitaratu ostean, ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak sinatu beharko du deialdiaren erabakian proposaturiko finantzaketa baldintzak onartzen dituela dioen dokumentua.

21.4. III. modalitateari dagokionez, deialdiaren erabakia argitaratutakoan, ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak laguntza onartu dela jakinaraziko dio eragile sozialari, hark hitzarmenean adierazitako finantziazioa bertan ezarritako baldintzen arabera eman dezan, gehienez 90 eguneko epean, erabakia hartu denetik hasita.

Epe hori amaituta eragile sozialaren ekarpena jaso ezean, Errektoreordetzak proiektuari esleitutako aurrekontua blokeatu eta, hala badagokio, kendu ahal izango du.

21.5. Aurreko 23.4. atalean ezarritakoa ez da aplikagarri izango eragile soziala GKE bat edo irabazi asmorik gabeko bestelako erakunde bat bada.

22. oinarria. JARRAIPENA

22.1. Ikerketaren arloko errektoreordetzak antolatuko du subentzionatutako eskariei jarraipena egiteko prozedura.

22.2. Urteko txostena. III. modalitatearen bidez finantzaturiko ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak jardueren jarraipen zientifiko eta ekonomikoari buruzko txosten partziala aurkeztu beharko du horretarako berariaz emango zaizkion inprimakiak erabiliz. Txosten horien argitan ikusten bada proiektua modu esanguratsuan alden du dela planetik (aurreikusitako helburuak lortu ez direlako edo dirua ez delako planteatu ziren helburuetarako erabili), unibertsitateak laguntza ematen ez jarraitzea edo proiektua bertan behera uzteko espedientea zabaldu eta erabili ez den kreditua erretiratzea erabaki dezake, bai eta eragile sozial finantzatzaileari berak jarritako dirutik oraindik erabili ez dena itzultzea ere.

22.3. Amaierako txostena. Jarduerak amaitu eta hurrengo hilabetean, lortutako emaitzak horretarako emango den inprimaki batean idatzitako amaierako txosten batean jasoko dira. Ikertzaile nagusiak sinatu beharko du txostena, eta hura kide deneko sail edo institutuko zuzendariak onespina eman beharko dio. Txosten hori deialdi honetako hiru modalitateen bidez emandako laguntzen indarraldiaren amaieran egingo da.

22.4. Amaierako ebaluazioa. Azken txostena hartu ondoren, lortutako emaitzak ebaluatuko dira. Ebaluaziorako irizpide izango dira:

- a. Emaitzak plazaratzeko egindako argitalpenak, eta, hala dagokionean, lortutako aplikazioak, patenteak, prototipoak eta merkaturatzeko moduko bestelako produktuak.
- b. Kanpoko finantzazioaren eta UPV/EHUko finantzazioaren arteko ratioa, jarduera plana bete den aldiaren.
- c. Modalitate bakoitzerako ezar daitezkeen beste irizpide batzuk.

22.5. Eragile sozialaren txostena. III. modalitateko proiektuak amaitu eta gero, parte hartu duten eragile sozialek txostena egin beharko dute honako hauek azalduz: proiektuaren barruan burututako jarduerak, lortutako emaitzen ebaluazioa eta etorkizunean emaitzak ustiatzeko aukerak. Txosten hau horretarako emango den inprimakian idatzi beharko da eta eragile sozialaren aldetik proiektuaren arduradun izandakoak sinatuko du.

22.6. Modu deszentralizatuan egindako gastuen kasuan, faktura originalak ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiaren sailean edo institutuan artxibatuko dira. Faktura horiek eskuragarri egongo dira

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko Barne auditoretzako zerbitzuak, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiaztapenen bat egin behar dutenerako, eta hala, deialdi honen kargura jasotako laguntzei buruz beren zereginen baitan eskaturiko edozer informazio eman beharko zaie.

Ez da onartuko, ezelan ere, fotokopiarik jatorrizkoa galdu egin delakoan.

22.7. Proiektua gauzatzeko epearen barruan egindako gastuak bakarrik egotzi ahal izango zaizkio proiektuari; hau da, epe horretan egindako erosketak, bidaiak, lanak, eta abar.

23. oinarria. EMAITZEN ZABALKUNTZA ETA USTIAPENA

23.1. Ikerketaren ondorioz sortutako emaitza guztietan edo emaitzok zabaldu eta ustiatzeko argitalpen eta ekitaldi guztietan (direla ponentziak, hitzaldiak, kongresuak edo parte hartutako bestelako zientzia gertakariak edo patenteak, prototipoak edo erabilera ereduak), UPV/EHUren filiazioa ageri beharko da, bai eta erakundearen ikusizko nortasuna ere, unibertsitateak zehaztutako baldintzetan.

23.2. Ikertzaileak zein erakundetakoak diren jasota agertzeaz gain, esker onen atalean zehaztuta ageri beharko da ikerketa hori aurrera eramateko finantzazioa eman duten erakundeen zerrenda.

23.3. Ikerketa jarduerak aurrera eraman ahal, potentzialki patentagarriak edo jabetza intelektualerako bestelako elementuen bidezko babesa jaso beharreko emaitzak sumatuko balira, emaitza hauek ikerketako errektoreordetzari jakinaraziko zaizkio, beren erregistroa egin dezan, pertsonal espezializatuak honela iritziko balio. Erregistratuz gero, UPV/EHU izango da patenteen eta jabetza intelektualaren titularra. Asmakizunean parte hartu duten ikertzaileak asmatzaile gisa aitortuko dira. Erakunde edo eragile sozialekiko lankidetzan burututako proiektuen kasuan, titulartasun partekatua edo kasu bakoitzerako ustiapen eskubide espezifikoa negoziatuko dira, erakunde bakoitzak jarritako baliabide guztien proportzioan.

24. oinarria. LAGUNTZA EMATEAREN BALDINTZEN ALDAKETA

24.1. Ikertaldeari diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuko balira, betiere haren xedea betetzat jo denean, edo ikertaldeak diru laguntzarik jasoko balu beste erakunde publiko edo pribaturen batetik, horrek bere garaian eman zen laguntzaren aldeko erabakia aldatzeko erabakia ekar lezake eta, horren bidez, proiektuari esleitutako aurrekontua murriztea edo, hala badagokio, kentzea.

Horretarako, erabakia hartu aurretik, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedaturiko administrazio prozedura burutuko da, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak proposatuta, eta haren berri emango zaio, indibidualki, ikertaldeko ikertzaile nagusiari.

24.2. Honako kasu hauetan ulertuko da diru laguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:

- a. I. edo II. modalitateetako laguntza eskaeretan xede gisa deskribaturiko jarduerak gauzatzeari uko egitea, edo ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak proiektua gauzatzeari uko egitea, edo proiektuko ikertzaile nagusia UPV/EHUkoa ez den beste erakunde batera lekualdatzea, edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bidaltzea, horrekin arriskuan jarrita proiektuaren zuzendaritza eta aurreikusitako helburuak lortu ahal izatea.
- b. Ikerketa proiektu berbererako beste iturri batzuetatik diru laguntza jasotzen denean, edo beste erakunde, entitate edo zentro publiko edo pribatu batzuei ikerketa proiektu beraren aldakiak aurkezten bazaizkie behar bezala justifikatu gabe eta finantzaketa eskatzeko xedez, aldeztu aurretik Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian ez betetzea.
- d. Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatu direnean.
- e. I. eta II. modalitateetako ikertaldeetako edo III. modalitateko proiektuetako taldeetako pertsona kopurua aldatzea (behera eginda), 25. oinarrian ezarritakoaren arabera.
- f. Jarduera finantzatzeko xedez egindako deialdien barne ez dauden gastuak egitea UPV/EHUK kontrataziorako ezarritako prozedura zentralizatuak bete gabe.
- g. Ildo horretan, UPV/EHUK ezarritako prozedura zentralizatuetatik kanpo erosketaren bat eginez gero, laguntzaren emakida itzuli beharko da, erabili gabeko finantzaketa kenduko da eta, hala badagokio, proiektuan laguntzen duen erakundeari itzuli beharko zaio emandako eta une horretara arte erabili gabeko kopurua.

25. oinarria. III. MODALITATEKO IKERKETA PROIEKTUKO TALDEAREN OSAERA

ALDATZEA 25.1. III. modalitateko ikerketa proiektuko taldearen osaeran edo zer aldaketa egiteko baimena eskatu beharko zaio Ikerketaren arloko errektoreordeari, eta hark kudeatuko du dagokion erabakia.

Eskaera aurkezteko epea amaitzen denetik urtebete igaro arte ez da onartuko inork ikertaldea uztea, ezpada ezinbestean.

Aldaketa hori eskatuko balitz, Ikerketaren arloko errektoreordeak IGBBri helaraziko dio eskaria, txostena eman dezan berori onartu edo ezetsi beharrari buruz eta erabaki proposamena Ikerketaren arloko errektoreordeari jakinaraz diezaien.

25.2. Ikertaldeetako kideen aldaketak, altak eta bajak Ikerketaren arloko errektoreordeak baimena ematen duen egunean hasiko dira eragina izaten, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak aurretik txostena eginda.

26. oinarria. LAGUNTZA ESKURATZEN DUTENEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio, besteak beste, diru laguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorrei buruzko arauari.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoak (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoak) ari direla.

27. oinarria. IKERKETA JARDUERAKIN LOTURIKO IRIZPIDE ETIKOAK

27.1. Deialdi honetarako proposatu diren jardueretan gizakirik, gizakien lagin biologikorik edo pertsonen datu pertsonalak erabiliko badira, honakoak bete beharko dituzte:

- Deklarazioetan jasotako printzipio etikoak errespetatu (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokioko Deklarazioa, 2004).
- Indarreko arauak bete behar dira: 14/2007 Legea, biomedikuntzako ikerketei buruzkoa; 1716/2009 EDa, Biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, pazientearen autonomiari buruzkoa; Datu Pertsonalei buruzko 15/199 Lege; eta UPV/EHUko arautegia, datu pertsonalak babesteari buruzkoa, 2008koa.
- IIET/GIEB-UPV/EHU Ikerketako Batzorde Etikoaren aldeko txostena lortu, aldeztu aurretik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Arautegiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAAn argitaratu zen, 32. zk.).

27.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimendu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Ordeztu, murriztu eta fintzeko irizpideak errespetatu, nazioartean sustatu bezala.
- Animaliekiko ikerkuntzaren arloan (53/2013 ED) indarrean den arautegia bete.
- Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordearen (AEEB) aldeko txostena lortu, aldeztu aurretik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAAn argitaratu zen, 32. zk.).
- Agintari eskudunaren baimena agertu (foru diputazioen abeltzaintza saila).

27.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak edo genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Prebentzio, zuzenbidea eta informazioaren printzipioak errespetatu, giza osasuna eta ingurumena babesteari dagokionean.
- Arlo honetan indarrean den legeria bete: laneko arriskuen prebentziorako 31/1995 legea; agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik langileak babesteari buruzko 664/1997 ED; agente kantzerigenoen esposizioari lotutako arriskuetatik langileak babesteari buruzko 665/1997 ED; genetikoki eraldatutako organismoak merkaturatzeko, nahita askatzeko eta haien erabilera konfinatua egiteko araubide juridikoa ezartzen duen 9/2003 legea eta 178/2004 ED).

- Agente Biologikoekin eta Genetikoko Eraldatutako Organismoekin egindako Ikerketetarako Etika Batzordearen (ABIEB) aldeko txostena lortu, alde zuzenik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAAn argitaratu zen, 32. zk.).

27.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrioi zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioietatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, bai eta 09/2014 ED ere, uztailearen 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan beharko da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, bai eta biobanku horiek jarduteko oinarritzko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira. (EBO, 290. zk., 2011ko abenduaren 2koa, ostirala).

27.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ez eta, zehatzago, armak egiteko eta/edo merkaturatzeko enprekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsua jarri ahal izango da erabakia argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikularekin bat etorrira.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioan, 2018ko otsailaren 2an

José Luis Martín González
Ikerketaren Arloko Errektoreordea
Vicerrector de Investigación